

ESPAINIAKO GOBERNUA. Euskal abertzaletasunak Espainiako Konstituzioa hausteko bidea har dezakeela esan du

EAJ «beste Lizarra bat» abiatu nahian dabilela salatu du Aznarrek

Jeltzaleek sozialisten «neutralizazioa» eta ETaren su-etena bilatzen dutela adierazi du

Agentziak | MADRIL

Lizarra-Garaziko Ituna berriro abian jartzeko Madrilekin konfrontazioaren bidea hartu izana egotzi zion atzo Jose Maria Aznarrek EAJri. Espainiako Gobernuako presidentearen hitzetan, jarrera hori da Kontzertu Ekonomikoaren aferan adostasunik ez lortzeko «zio bakarra».

Lizarra-Garaziren bigarren saiorako bidean, alderdi jeltzaleak PSE-EE «neutralizatuko» luke lehenbizi, eta gero ETAk su-etenera deitzeko ahaleginak egingo lituzke, betiere Aznar presidentearen hitzetan. Iragan astean Jaime Mayor Orejak egindako adierazpenen oso antzekoak dira atzo Aznarrek COPE irratan egindakoak. Su-etenaren aurretik, «EAJren eta ETaren munduen artean hurbilketa» gertatuko dela adierazi zuen Aznarrek, «horrela abertzaletasunak hauteskundeetan emaitza hobeak lortu eta ondoren Konstituzioarekin hausteko bidea aise har dezakeelako».

Kontzertu Ekonomikoak honezkero sinatuta behar zuela gaineratu zuen, «guzti-guztian ados egon ginelako». Espainiako Ogasun Ministerioak EAEko hiru foru aldundien onespina jasoa zuela esan ondoren, erkidego autonomoak Madrili ordaindu behar dion Kupoaren

ESANAK


JOSE MARIA AZNAR
(Espainiako presidentea)

«Kontzertuak sinatuta behar zuen honezkero: guzti-guztian ados geunden, bai kupoan, bai aldundiekin»

«Lizarraren bidean, EAJk alderdi sozialista neutralizatuko du, eta gero ETaren su-etenean ahaleginduko da»

«Autonomiei dagokienez, Espainiak goia jo du, erkidegoek ez baitute inoiz orain beste baliabide izan»

zenbatekoa «hitzartuta» zegoela erantsi zuen. «Behin akordioa erdietsita, ez dakit zergatik atera zuten Europako ordezkariaren gaia, jakinda hori Konstituzioaren aurka doala, baita Europako Batasuneko funtzionamendu arauen aurka ere», gaineratu zuen Espainiako gobernuburuak.



ANGEL DIAZ / EFE

Jose Maria Aznar, Espainiako gobernuburua, artxiboko irudi batean.

Galiziako presidente Manuel Fragak eta beste zenbait erkidegotako agintariek Senatua benetan lurraldeen ganbera bilaka dadin Espainiako Konstituzioa aldatzeko egin dituzten adierazpenen aurrean, Aznarrek goitik behera baztertu zuen aukera hori. «Alferrikako arriskua» irizten dio Konstituzioa aldatzeari, eta, autogobernuari dagokienez, Espainiak goia jo duela esan zuen. «Autonomia erkidegoek ez dute inoiz orain beste finantza baliabide izan» esanda baztertu zituen Aznarrek autonomien atzerakadaren erruduna delako kritikak.

PSOEn egoerari buruz, Rodríguez Zapaterok ez independentziarik ezta egitasmo alternatiborik ere ez duela adierazi zuen. «Oposizioa iraganetik bizi da, errealitatetik ihesi», esan zuen, eta bere ideiak gara ditzala eskatu zion PSOeri.

ESPAINIAKO KONGRESUA. IC-V eta ERCren proposamenak atzera bota dituzte

PPk eta PSOEek galarazi dute herri galdeketak baimentzeko eskumena autonomiek izatea

Agentziak | MADRIL

Alderdi Popularrak eta PSOEek atzera bota zuten Iniciativa per Catalunyaren eta Esquerra Republicana de Catalunyaren lege proposamen bana, Espainiako Kongresuan. Autonomia erkidegoei herri galdeketak baimentzeko eskumena eman nahi zieten. IC-V eta ERC alderdiek Talde Misto, IU, CiU eta EAJ-

ren aldeko bozak jaso zituzten, baina ez ziren nahikoa izan PPk eta PSOEek lortutakoei aurre egiteko. Popularrak eta sozialistek herri galdeketara deitzeko eskumena Estatuari dagokiola eta erkidegoei utzi ezinekoa dela adierazi zieten gainerako taldeei, «Konstituzioak hala agintzen duelako».

IC-Vk, udalei dagozkien eskumenetan eta herri mailako

arazo eta kontuetan alkateek herri galdeketak egin ahal izan ditzaten zenbait lege aldaketa proposatu zituen. Aurretik, baina, udaleko osoko bilkuran gehiengoaren adostasuna eta gobernu autonomikoaren baimena beharko zuten alkateek galdeketa gauzatzeko. ERCren proposamenak, berriz, Kataluniako Generalitatera mugatzen zuen bere eskaera.

Bake proposamenaren AURKEZPENAK

GAUR BILBO

Bidebarrieta Liburutegia. 19:30 etan.
KARMELO LANDA ARANTZA URKAREGI

BIHAR

Deustu: Bidarte Aretoa. 19:30etan.
Uribarri: Eskoletan. 19:30etan.

OTSAILAK 15

Errotxapea: Colegio AveMaria. 19:30etan

OTSAILAK 19

Algorta: Kultur Etxea. 19:30etan.

OTSAILAK 20

Bermeo: Nestor Basterretxea Aretoa. 20etan.

Errekalde: Gabriel Aresti Eskoletan. 19:30etan.

Altamira: Herriko Tabernan. 19:30etan

OTSAILAK 21

Tafalla: Kultur Etxea. 20etan.

Sanduzelai: Colegio público. 19:30etan.

Mendillorri: Colegio publico. 19etan.

Zumaia: Oxford-en 19:30etan.

Abusu: Zamakolako Eskoletan. 20etan.

OTSAILAK 22

Etxebarría: Udal Aretoa. 21etan

Orozko: Kultur Etxea. 19:30etan.

Atarrabia: Kultur Etxea. 19:30etan

konponbide

demokratikorako proposamena

Proposition pour une éducation démocratique du conflit en Pays Basque

Propuesta para una educación democrática

batasuna